

MUk eta Maierrek ibilgailuen osagaien berrikuntzaren sariak banatu dituzte

2012/07/05

Erabiltzaileen interesa pizteko asmoz, autoen akaberen diseinuan eta material, kolore eta testura berritzaile eta erakargarrietan proposamenik hoberenak aurkitzea da Mondragon Unibertsitatearen Diseinu Berrikuntza Zentroak eta Maierrek antolatutako Colour & Trim Lehiaketaren asmoa

Ekitaldian Europako bi industria-diseinatzaile ospetsu izan dira: alde batetik, Gail Patrick, Colour & Trimeko diseinatzailea, Europako Nissanen diseinu-estudioan (Nissan Design Europa) 10 urtez lanean aritutakoa, eta beste aldetik, Simon Harris, industria diseinatzailea eta VISTEON AUTO ENVISIONeko diseinu-burua, sorkuntza-prozesuaz aritu dena

Mondragon Unibertsitateak ematen dituen industria-diseinuaren esparruko jarduera guztiak biltzen ditu Diseinu Zentroak, dela jarduera akademikoa (Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzako Gradua eta Produktu eta Zerbitzuen Diseinu Estrategikoko Unibertsitate Masterra), dela ikerketa- eta transferentzia-jarduera eta enpresetarako funtsezkoak diren honako bi ikerketa-ildo hauek ditu ardatz: alde batetik, Iraunkortasunari eta Eko-berrikuntzari lotutako ildoak, eta beste aldetik, Esperientzien Diseinuari, Elkarrekinzari eta Diseinu Inklusiboari lotutakoa.

Guztira 50 ikaslek hartu dute parte lehiaketan; gaur, sariak ebatzi eta lau hobereenen artean banatu dira, honako hauek direnak:

Master saria. ORGANIC SOPHISTICATION proiektua. Egileak: Iker Agirre, Elene Cid, Leire Goitia eta Amaia Zapirain. Epaimahaiak material naturalen erabilerari buruzko ikerketagatik saritu du, erlaxazioa, natura, egonkortasuna... eta halako sententzioak transmitituko dituzten alderdi berriak sortzeko oinarria baitira material horiek. Proiektu berritzailea da eta materialen erakusgai zabala nabarmentzen da bertan.

Graduko lehen saria. STRESS SOCIETY proiektua. Egilea: Xabier Albizu. Itsas inguru batean inspiratutako ingurune erlaxagarria sortzeagatik saritu dute. Helburu hori lortzeko, argizatutako zurezko xafiak eta metala eta zura nahasi ditu. Proiektu osatua da, berritzailea, ondo aurkeztua eta material-erakusgai eraginkorrekin.

Graduko bigarren saria. COMFORT & WELFARE proiektua. Egilea: Laura Julian. Zura eta "aromaterapia" kontzeptua konbinatzeagatik eta ibilgailuaren barruan lortu duen material eta koloreen harmoniagatik. Materialen aurkezpena ere nabarmentzen da.

Materioteka onenarentzako Graduko saria (materioteka panel bat da, eta bertan kokatzen dira ikasleek ibilgailuen akaberarako aukeratu dituzten materialen laginak). URBA NOMADS proiektua. Egilea: Izaskun Peñagarikano. Urban Nomads eta auto elektrikoaren joeraren inguruan egindako ikerketaren koherentziagatik. Izan ere, materialak aukeratu eta konbinatuz, kontzeptu berritzaileak lortu eta egoki transmititzen jakin du.

Zentro berriak industria-alorreko erreferentzia izan nahi du Estatuan, produktu eta zerbitzu berritzaileak garatzeko diseinuaren aldeko apustua eginez, enpresak lehiakorragoak eta berritzaileagoak izan daitezten.



Maierreko Colour & Trim sariak

